



hitzaren eskola

2020
2021



HITZAREN ESKOLA

- > Hasiara-data: 2020ko irailaren 9a
- > Amaiera-data: 2021ko martxoaren 27a
- > Tokia: Dinamo Sormen Gunea, Azpeitia (Gipuzkoa)
- > Ordutegia: asteazkena: 18:00-20:00 + larunbata: 10:00-13:00
- > Izaera: Presentziala
- > Ordu kopurua: 120 ordu
- > Matrikula-prezioak: Orokorra: 375,00 €. Ikasle, langabe eta erretiratuak: 250,00€
- > Matrikula-eparearen hasiera: 2020ko maiatzaren 8a
- > Matrikula-eparearen bukaera: 2020ko ekainaren 8a

Hitzak josten du gure bizitza, pentsamendua eta jarduna. Eta egunerokoa izanagatik ez gara ohartzen bere botereaz, gure bizitza egituratzeko duen ahalmenaz.

Hitza bera ardatzean jarrita egin nahi dugu eskola hau. Ez diziplina bat, bere tresna eta teknika espezifikoeekin, baizik eta hitza bera, bere ertz guztiekin, bere ahal izugarriarekin, bere izaera eta aukera guztiekin. Eta horretarako, hitza euren jardunaren oinarrian daukaten idazle, bertsolari, esatari, itzultzaile, gidoigile eta abarrak ekarriko ditugu eskolak ematera, hitzaren ahozko nahiz idatzizko alderdiak lantzeko, eta adierazpide bakoitzak besteak nola aberastu ditzakeen ikusteko, betiere osotasun baten bila: hitzaren jabe egitea belaunaldi berriak, hitza hartzeko bidea jartzea.

Hatsa da hasieran, hotsa da hurrena, hitza da gero. Hiztuna da bat, beste ezeren aurretik. Gero dator irakurle, idazle, bertsolari, kazetari, itzultzaile, zernahi izatea, baina hasieran bat hiztuna da, eta hitzezkoa da mundua. Iturri ugaritatik edaten du gero, ez hitzetik bakarrik, artetik, musikatik, zinetik, edonondik, eta bizitza bera du, azken finean, bere osotasunean, bere heldu ezinean, lanerako ekai. Baina hitza du tresna, hizkuntza du lehengai, eta hizkuntza bere egin behar du, mundua kontatzeko.

Idatzi, aldatu, ezarri, ezabatu, berridatzi, itzuli, esan, esan, eta berriz esan. Berbaren sormen laborategi honetan, hainbat iturritatik edanez, nork bere ahotsa bilatu ahalko du, nork bere hitza.

HELBURUAK

- > Hitza ardatz hartzen duten hainbat sormen adierazpide ekartzea.
- > Adierazpide guztiak gurutzatzen diren puntuan jartzea arreta: hitza.
- > Hitzaren lanketa integral bat eskaintzea, ikerketatik, sormenetik, esperimentazioari leku eginez.
- > Hitzaren ahalaren jakitun egitea ikasleak, erreferentziak emanaz, lanean jarritz, praktikaren bidez.
- > Tradizio bat eskaintzea sortzaile berriei, eta sortzaile berriak tradizio bati.
- > Mundua euskaraz kontatzen jarraitzeko tresnak ematea.

DINAMIKA ETA METODOLOGIA

Iraupena eta egutegia

- > 6 hilabeteko iraupena:
 - 2020ko iraila, urria eta azaroa.
 - 2021ko urtarrila, otsaila eta martxoa.
- > Asteazkenero: 18:00etatik 20:00etara.
- > Larunbatero: 10:00etatik 13:00etara.

Egitura

- > 6 irakasle-tutore; bakoitza hitzaren adierazpide batekoa, bakoitza hilabetez.
 - ANDONI EGAÑA
 - MADDI BARBER
 - IÑIGO ARANBARRI
 - HAIZEA BARCENILLA
 - XABIER ERKIZIA
 - ARANTXA ITURBE
- > 12-15 laguneko taldea izango da eskolak jasoko dituenak.

NORI ZUZENDUA

- > 18 urtetik gorako euskaldunei.
- > Hitzaren lanketa sormenetik abiatu nahi duenari.
- > Hitzaren eremuan trebatu eta sakondu nahi duenari.
- > Hitza ardatz duen komunitate bateko kide izan nahi duenari.

IZEN EMATEA

- > Epea: 2020ko maiatzaren 7tik ekainaren 7ra
- > Izen emate orria: <https://forms.gle/GusvDnLFUPRdN27u7>
- > Zalantzak argitzeko, harremanetarako: idatzi dinamo@dinamo.eus helbidera edo deitu 635 738 760 telefonora.

JAKINGARRIAK

Kokapena. Dinamo sormen guneko Hitzaren Eremuan du habia Hitzaren Eskolak, Azpeitiko kultur dinamika oparoaren baitan.

Ekitaldi irekia. Hilero, azken asteako asteazkenean ekitaldi irekia, hilabete horretako irakasleak hautatua, hilabete horretako jardunarekin lotua (solasaldi, filma emanaldi, kontzertu, mahai inguru, hitzaldi...).

Jarraipena. Hilero bilduko dira 6 irakasleak eskolaren beraren jarraipena egiteko.

Memoria. Ikasturteko jarduna bilduko duen memoria egingo dugu amaieran.

Baliabideak. Sareko tresnak erabiliko ditugu irakurketak, ariketak, edukiak eta bestelakoak elkarbanatzeko.



DINAMOA
SORMEN GUNEA

www.dinamoia.eus
dinamoia@dinamoia.eus



Antolatzailea:

Azpeitiko
Kultur
Mahaia

Kulturaz
Azpeitiko Kultur Kooperatiba

 **azpeitiko udala**
denon artean

Laguntzaileak:

 **EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

 **Gipuzkoako**
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa